

KOMAREN ERABILERA

1. Zerrendak edo segidak egiteko.

- Gaur goizean, harategian, arrandegian, loradendan eta okindegian izan naiz.
- Etxean sartu, arropa aldatu, musika jarri eta sofan etzan zen.
- Sagarrak, madariak, laranja, eta abar jan behar ditugu.

2. Esandakoa argitzeko edo osatzeko.

- Koldo, Aneren anaia, etxera joan da.
- Eskuetan daukazu paper hori, lurrean aurkitu duzuna, nirea da.
- Maite, beti egiten duen bezala, berehala etorri da laguntzera.
- Zuk diozun hori, oker ez banago, orain dela urtebete gertatu zen.
- Peru, gelako nagusia, bere urtebetetzea ospatuko du larunbatean.

3. Norbaiten arreta deitzeko.

- Mikel, ekar itzazu oinetako horiek.
- Aizu, Itziar, zatoz lehenbailehen.
- Mutilok, hemen nauzue!

ARIKETA

1. ONDO IRAKURRI ESALDIAK ETA IDATZI KOMAK BEHAR DIREN LEKUETAN. ONDOREN ESAN KOMA ERABILTZEAREN ZERGATIA ZEIN IZAN DEN: **ZERRENDA** EGITEKO, **ARGITZEKO** ZEOZER EDO NORBAITEN **ARRETA** DEITZEKO IZAN DEN.

- **Kutxa horietan liburuak diskoak koadernoak eta errotulkiak daude.**
- **Gizon hori kamiseta gorriduna nirekin lan egin zuen.**
- **Mesedez Imanol etorri nirekin kontzertura.**
- **Belarritako horiek nahi ditut berdeen ondoan daudenak politenak dira eta.**

- Ez dakit medikuarenera hamabian hamahiruan edo hamalauan joan behar naizen.
- Ander emaidazu hori oraintze bertan!
- Ikastaroa irailan urrian eta azaroan da.
- Maria atzo zineman ikusi genuen neska euskaltegiko irakaslea da.
- Ama heldu naiz.